

ARTEA

Egilea: Yasmina Reza

Itzultzailea: Julia Marin, 2006

PERTSONAIAK

MARCOS
SERGIO
IBON

Apartamentu bateko egongela.

Dekoratu bakarra, abalik eta apaindura gutxien duena, abalik eta neutroena. Eszenak elkarren segidan egingo dira SERGIO, IBON eta MARCOSen etxean. Ez da ezer aldatzen, ikusgai dagoen pintura-lana izan ezik.

MARCOS, *bakarrik.*

MARCOS: Nire lagun Sergiok koadro bat erosi du. Metro eta hirurogei luze eta metro eta hogeitazabaleko oihala da, zuriz margotua. Hondo zuria du, eta begiak pixka bat bilduz gero, marra zuri fin-fin batzuk ikus daitezke zeharka.

Sergio lagun zaharra dut. Mutil arrakastatsua da, mediku dermatologoa eta artezalea.

Astlehenean haren etxera joan nintzen koadroa ikustera; larunbatean erosi zuen, baina hilabete dezente zeramatzan erosteko irrikan. Koadro zuri bat zeharka marra zuri batzuk dituena.

1. SERGIOren etxean.

(SERGIO + MARCOS)

Lurraren arrasean, oihal zuria bat, zeharka marra zuria batzuk dituena.

SERGIO koadroari begira, pozik.

MARCOSek koadroari begiratzen dio.

SERGIOk MARCOSi begiratzen dio, hau koadroari begira dagoen bitartean.

Isilune luzea, sentimenduak hitzik esan gabe azaleratzen dituena.

MARCOS: Garestia?

SERGIO: Bost.

MARCOS: Bost?...

SERGIO: Handtington prest zegok berriz erosteko bost eta bostehunean.

MARCOS: Nor da hori?

SERGIO: Handtington?!

MARCOS: Ez diat ezagutzen.

SERGIO: Handtington! Handtington galeria!

MARCOS: Handtington galeria prest dago berriz erosteko bost eta bostehunean?...

SERGIO: Ez, galeria ez. Bera. Handtington bera.

MARCOS: Eta zergatik ez du Handtingtonek berak erosi?

SERGIO: Jende horri partikularrei saltzea interesatzen zaiok. Merkatuak mugitu egin behar dik.

MARCOS: A!

SERGIO: Eta?

MARCOS: ...

SERGIO: Hor leku txarrean hago. Begiraiok hemendik. Ikusten al dituk marrak?

MARCOS: Nola deitzen da...?

SERGIO: ... pintorea? Antrios.

MARCOS: Ezaguna?

SERGIO: Oso. Oso!

Isilunea.

MARCOS: Sergio, bost milioi pezeta ordaindu dituk koadro honen truke?

SERGIO: Hori duk prezioa, motel. ANTRIOS bat duk!

MARCOS: Ez dituk ordaindu bost milioi pezeta koadro honen truke!

SERGIO: Banekian ez huela gustuko izango.

MARCOS: Bost milioi pezeta ordaindu dituk koadro honen truke? Kaka hutsa duk eta!

SERGIO, *bakarrik balego bezala.*

SERGIO: Nire lagun Marcos oso mutil jatorra da, estimu handitan daukat aspalditik. Ingeniari aeronautikoa da, ondo kokatua dago. Intelektual berri horietako bat da: modernitatearen etsai izatearekin aski ez, eta aho betean esaten du gainera, lotsa-izpirik gabe.

Azken bolada honetan izugarrizko harropuzkeria zabaltzen ari da lehengo garai zoriontsuen nostalgia sentitzen dutenen artean.

Pertsonaia berberak.

Koadro bera.

Leku bera.

SERGIO: *(Isilune baten ondoren)* ... Nola esan dezakek «kaka hutsa» dela?

MARCOS: Sergio, mesedez, umore pixka bat! Egintzak barre..., gizona, barre egin! Harrigarria duk koadro hau erosi izana!

MARCOS *barrez.*

SERGIO *zur eta lur.*

SERGIO: Harrigarria iruditzen zaik koadroa erosi izana, oso ondo; barrea eragiten dik, primeran; baina jakin nahi niake zer dela eta esaten duan «kaka hutsa» dela. «Kaka hutsa» zerekin alderatuta? Zerbait kaka hutsa dela esateko, irizpideren bat izango duk, ala?

MARCOS: Norekin ari haiz? Norekin ari haiz une honetan?

SERGIO: Hiri ez zaik interesatzen pintura garaikidea, ez zaik sekula interesatu. Ez dakik deus horretaz, nola esan dezakek kaka hutsa dela ez badituk ezagutzen obra hori epaitzeko erabiltzen diren legeak?

MARCOS: ... Kaka hutsa duk. Sentitzen diat.

SERGIO *bakarrik.*

SERGIO: Ez zaio gustatzen koadroa.

Batere sentiberatasunik ez haren jarreran.

Inolako ahaleginik ez.

Samurtasun-arrastorik ez bere kritikan.

Irribarre harroputz eta zital bat besterik ez.

Dena inork baino hobeto ezagutzen duenaren irribarrea.

Ezin dut eraman irribarre hori.

MARCOS *bakarrik.*

MARCOS: Sutan jartzen nau Sergiok koadro hori erosi izanak, kezkatu egiten nau, larritasun izugarria eragiten dit.

Haren etxetik irtendakoan, hiru pilula hartu behar izan nituen: Gelsenium 9 CH. Paulak galdetu zidan: Gelsenium ala Ignatia? E? Zer nahiago duzu Gelsenium ala Ignatia? Eta nik zer dakit!!. Ezin dut ulertu nola erosi duen Sergiok koadro hori.

Bost milioi!

Mutila ez da aberatsa. Bizimodu eroso darama, hori bai, baina besterik ez. Eta bost milioi gastatu ditu oihal zuri batean!

Ibonekin hitz egin behar dut. Bai, Ibonekin hitz egingo dut. Bion laguna da-eta. Baina Ibon oso mutil tolerantia da, eta hori da giza harremanetan eduki daitekeen akatsik larriena.

Ibon tolerantia da bost axola zaiolako dena.

Ibonek onartzen badu Sergiok bost milioi gastatu izana kaka zuri horretan, horrek esan nahi du Iboni bost axola zaiola Sergio. Hori garbi dago.

Horman, bi koadro ezin itsusiagoak.

IBON *publikoari bizkarra emanez eta lau bankan.*

Dirudienez, zerbait bilatu nahian dabil altzari baten azpian.

MARCOS *sartzzen da.*

IBON *berriro publikoari bizkarra emanez, zerbaiten bila.*

MARCOS: Zertan ari haiz?

IBON: Errotuladorea bilatzen.

Geldiune bat.

MARCOS: Tira, uztak.

IBON: Duela bost minutu eskuan neukaan.

MARCOS: Berdin duk.

IBON: Ez.

IBONek bila jarraitzen du.

MARCOS: Utzi. Erosiko duk beste bat.

IBON: Errotuladore bereziak dituk, edozein azaletan marraztekoak.

Amorrua ematen zidak. Ezin duk imajinatu ze baldarra naizen gauzekin. Kontra jartzen zaizkidak beti. Sutu egiten naitek. Hemen neukaan oraintxe.

MARCOSek lurrean ikusten du errotuladorea. Hartu eta jakaren poltsikoan gordetzen du.

MARCOS: Hona etorriko zarete bizitzera?

IBON : Egokia iruditzen bikote gazte batentzat?

MARCOS: Bikote gaztea! Ja, ja!

IBON: *(Imitatu)* Ja, ja!

MARCOS: Eta papertegia?

IBON: Ondo. Ari nauk ikasten.

MARCOS: Argaldu egin haiz.

IBON: Pixka bat. (*Amorraturik*) Non arraio sartu da errotuladore madarikatu hori?

MARCOS: Bila jarraitzen baduk, alde egingo diat.

IBON: Ondo. Kito. Zerbait hartu nahi duk?

MARCOS: Bai, biodramina bat: zorabiatzen ari nauk. Sergio ikusi al duk azken bolada honetan?

IBON: Ez. Eta hik?

MARCOS: Atzo.

IBON: Ondo dago?

MARCOS: Izugarri ondo. Koadro bat erosi dik.

IBON: A, bai?

MARCOS: Mmm.

IBON: Polita?

MARCOS: Zuria.

IBON: Zuria?

MARCOS: Zuria.

Imajina ezak: oihal bat metro eta hirurogei luze eta metro eta hogeiz zabal... hondo zuria... eta diagonalean marra zuri fin-fin-fin batzuk zeharka..., ulertzen?

IBON: Eta nola ikus daitezke marra zuriak hondoan ere zuria baldin bada?

MARCOS: Ba, ikusten direlako. Ze, marrak grisaxkak dituk, eta hondoan zuria; edo alderantziz. Alegia, ñabardurak daudela zurian! Zuria duk, baina ez duk zuria!

IBON: Ez hadi haserretu. Zergatik haserretzen haiz?

MARCOS: Hi beti zirika! Utzidak bukatzen!

IBON: Bale. Segi.

MARCOS: Tira. Orduan, ikusten duk koadroa.

IBON: Ezin argiago!

MARCOS: Orain ea asmatzen duan zenbatean erosi duen Sergiok.

IBON: Nor da pintorea?

MARCOS: Antrios.

IBON: Ospetsua?

MARCOS: Banekian galdera hori egingo hidala!

IBON: Logikoa...

MARCOS: Ez, ez duk logikoa...

IBON: Horixe dela logikoa. Prezioa asmatzeko eskatu didak, eta hik ederki asko dakik prezioa pintoreak duen ospearen arabera dela...

MARCOS: Nik ez diat eskatu koadroaren balorazioa egiteko irizpideren baten arabera, ez diat eskatu balorazio profesional bat, nik galdetu diat hik, Ibonek, zenbat ordainduko lukeen erosketa horren truke, hau da, koadro zuri bat marratxo zuri edo zurixka batzuekin apaindua.

IBON: Xentimo bakar bat ere ez.

MARCOS: Hori ba. Eta Sergiok? Botazak kopururen bat.

IBON: Hirurehun mila?

MARCOS: Ja! Ja!

IBON: Milioi bat.

MARCOS: Ja! Ja!

IBON: Bi...

MARCOS: Segi...

IBON: Bi eta erdi?... Hiru?!...

MARCOS: (*Eskuarekin*: Bost)

IBON: Ez!

MARCOS: Bai.

IBON: Bost kilo??!

MARCOS: ...bost kilo.

IBON: Erotu egin duk!

MARCOS: Bai, ezta?

Etenaldi labur bat.

IBON: Baina...

MARCOS: Baina, zer?

IBON: Horrek zoriontsu egiten badu... Oso ondo ateratzen dik bizimodua...

MARCOS: Hala ikusten dituk hik gauzak?

IBON: Hik nola ikusten dituk, ba?

MARCOS: Ez al haiz konturatzen kontu larria dela?

IBON: Ez...

MARCOS: Marka duk gero istorio honen garrantziaz ez jabetzea. Itxurari bakarrik erreparatzen diok. Ez duk ikusten larritasuna.

IBON: Ze larritasun?

MARCOS: Ez duk ikusten zer dagoen guztiaren atzean.

IBON: Pistatxorik nahi? (*Altxatu egiten da bila joateko*)

MARCOS: (*Eskuekin eserarazten du*) Ez duk ikusten Sergiok, bat-batean, «kolekzionistatzat» hartuko duela bere burua.

IBON: Bo...

MARCOS: Gaurtik aurrera, gure lagun Sergiok Tissen baroia dela pentsatuko dik.

IBON: Bai zera! Ez, motel!

MARCOS: Horixe ezetz. Prezio horren truke nekez izango duk Tissen baroia. Baina berak baietz uste dik.

IBON: Zoriontsu baldin bada.

MARCOS: Zer esan nahi du «zoriontsu baldin bada» horrek?! Ze filosofia-mota da «zoriontsu baldin bada» hori?!

IBON: Hirugarren bat kaltetzen ez duen bitartean...

MARCOS: Bai, kaltetzen dik hirugarren bat! Ni. Aztoratuta nabilek; are gehiago, minduta. Sergiori, maite dudan lagunari, iruzur egin diotelako esnobismo hutsagatik eta jadanik ez zaiolako geratzen zentzu-aztarnarik ere.

IBON: Orain konturatu haiz? Beti ibili duk barregarri, galeriaz galeria, beti izan duk koadro-jale amorratua...

MARCOS: Bai, beti izan duk koadro-jale amorratua, baina lehen behintzat erraza zuan koadro-jalearekin barre egitea. Badakik zer mintzen nauen barru-barruan? Sergiorekin jada ez dagoela barre egiterik.

IBON: Bai, motel!

MARCOS: Ezetz ba!

IBON: Saiatu al haiz?

MARCOS: Bai. Barre egin nian. Eta gustura gainera. Zer nahi huen egitea? Baina berak ez zian ahorik ireki. Baina, noski, bost kilo kilo asko dituk, ez duk barre egiteko modukoa.

IBON: Nirekin barre egingo dik.

MARCOS: Harritzekoa lukek. Ekar itzak pistatxoak.

IBON: Barre egingo dik. Ikusiko duk.

SERGIO IBONekin dago. Koadroa ez da ikusten.

SERGIO: ... Eta aita-amaginarrebekin, harreman ona?

IBON: Bikaina.

SERGIO: Eseri, eseri.

IBON: Bizimodu eskaseko mutiltzat hartzen naitek. Haien ustez, oihal zakarrak utzi eta zetazko papera laztantzera pasatu nauk...

SERGIO: Pozten nauk hi ikusteaz. Ez didak sekula deitzen.

IBON: Ez diat trabarik egin nahi.

SERGIO: Hago isilik. Emaiok hire izena idazkariari, eta segituan deituko diat.

IBON: Arrazoi daukak. Hire etxe honek gero eta antz handiagoa zeukak fraide baten «ziegarekin»...

SERGIO: (*Barrez*) Bai!...

Ikusi al duk Marcos aspaldi honetan?

IBON: Ez, aspaldi honetan ez. Eta hik?

SERGIO: Duela bizpahiru egun.

IBON: Eta ondo dago?

SERGIO: Bai. Hainbestean.

IBON: Zer esan nahi duk?

SERGIO: Ez, ondo zegok.

IBON: Aurreko astean hitz egin nian harekin telefonoz, eta ondo zegoela ematen zian.

SERGIO: Bai, bai, ondo zegok.

IBON: Orduan, ez zegok oso ondo.

SERGIO: Baietz ba, esan diat: ondo zegok.

IBON: Hainbestean esan duk eta.

SERGIO: Bai, hainbestean. Baina ondo zegok.

Isilune luzea.

IBON: Ibiltzen al haiz kalean? Zerbait ikusi duk?

SERGIO: Deus ez. Orain ez zeukaat sosik kalean ibiltzeko. Etxean mozkortzen nauk frantsesen moduan.

IBON: Bai zera!

SERGIO: (*Barrez*) Erreka jo diat.

IBON: Ez!

SERGIO: Ikusi nahi duk zerbait aparta?

IBON: Bai, noski! Erakutsi!

SERGIO *gelatik irten eta Antrios-a eskuetan duela bueltatzen da.*

IBON*ek koadroari begiratzen dio, baina ez du barre egiten, egingo zuelakoan bazegoen ere.*

Isilune luzea: IBON koadroari begira, SERGIO IBONi begira.

SERGIO: Antrios.

IBON: Bai, bai, bai.

SERGIO: Antrios, hirurogeita hamarretakoa. Orain ere antzeko etapan zebilek, baina hau hirurogeita hamarretan egin zian.

IBON: Bai, bai. Garestia?

SERGIO: Nondik begiratzen duan. Dirutan, bai; bestela, ez. Gustatzen?

IBON: O! Bai, bai, bai.

SERGIO: Jakina.

IBON: Jakina, bai... Bai... Zera... Oso...

SERGIO: Magnetikoa, ezta?

IBON: Horixe!

SERGIO: Eta hori orain batere bibraziorik gabe ikusten ari haizela.

IBON: ... Ez pentsa, pixka bat bazeukak...

SERGIO: Ez, ez. Eguerdi partean ikusi behar huke. Bibrazio monokromatikoa ez duk antzematen argi artifizialarekin.

IBON: A...

SERGIO: Baina ez duk erabat monokromatikoal

IBON: Ez, ez, ez! Zenbat?

SERGIO: (*Eskuarekin: Bost.*)

IBON: ... Bost kilo!

*Bat-batean SERGIO barreꝥ hasten da, eta IBON ere bai.
Barreꝥ lehertzen dira biak.*

Behin bareturik biak:

SERGIO: Marcosek ere ikusi dik.

IBON: A, bai?

SERGIO: Izutu egin zuan.

IBON: A, bai?

SERGIO: Kaka hutsa dela esan zidaan.

IBON: A, bai?

SERGIO: Esamolde erabat desegokia.

IBON: Horixe.

SERGIO: Ez zegok esaterik kaka hutsa dela.

IBON: Ez.

SERGIO: Esan daitekek: Ez diat ikusten, ez zaidak iristen...

IBON: Ez zaidak gustatzen...

SERGIO: Baina ez zegok esaterik: «Kaka hutsa duk.»

IBON: Ikusi al duk haren etxea? Marcos oso karratua duk, gizon klasiko bat, nola nahi duk...

SERGIO: Barre faltsu batean hasi zuan, ez bat eta ez bi...

IBON: Odolberoa duk. Ez al haiz konturatu orain arte?

SERGIO: Ez zeukak umorerik. Hirekin barre egiten diat.

IBON: Horixe.

SERGIO: Marcosekin, berriz, harri eta zur geratzen nauk.

IBON: Pixka bat zapuztuta zebilek aspaldi honetan, egia duk.

SERGIO: Nik ez zioat leporatzen sentiberatasunik ez edukitzea pintura-mota hau estimatzeko, ez dik heziketa egokirik horretarako, ikastaldi luzea behar duk eta berak ez dik halakorik egin, beharbada zaletasunik izan ez duelako, edo sekula ikasi nahi izan ez duelako, berdin dik. Nik tonua leporatzen zioat, zakarkeria, handiustea, batere tenturik gabe ibiltzea. Ez zioat leporatzen arte garaikidea ez interesatzea, hori ez zaidak piperrik inporta, nik maite diat halere...

IBON: Berak ere bai hi!...

SERGIO: Ez, ez, ez, aurrekoan, nabaritu nioan niri gustu eman nahian ari zela nolabait..., burlaize moduko bat sumatu nioan...

IBON: Bai zera!

SERGIO: Horixe baietz! Hi beti gauzak baretu nahian. Tematzen bahaiz ere, hik ezin dituk munduko arazo guztiak konpondu. Errelajatu hadi! Gozoa sagardoa, ezta?

IBON: Bai, bai, bai.

SERGIO: Beste basokada bat ekarriko diat.

IBON: Ez, ez, ez.

SERGIO: Bai, bai, bai. Onartu beharra daukak: Marcos atrofiatzen ari duk.

Isilunea.

Horman, Guggenheim museoaren argazki bat, koadro-itxura duena.

MARCOS: Barre egin huen?

IBON: Barre egin genian. Biok egin genian barre, benetan.

MARCOS: Kaka hutsa dela esan hion, eta barre egin zenuten.

IBON: Ez, ez nioan esan kaka hutsa dela, barre espontaneoak izan zuan.

MARCOS: Iritsi, koadroa ikusi eta barrez hasi hintzen. Eta bera ere bai.

IBON: Bai. Gutxi gorabehera. Bizpahiru hitz esan ondoren, hala gertatu zuan.

MARCOS: Eta gustura egin zuen barre?

IBON: Oso gustura.

MARCOS: Ba, begira, oker nengoan. Eskerrak. Lasaitu egin nauk, benetan.

IBON: Eta are gehiago esango diat: Sergio izan zuan barre egiten lehena.

MARCOS: Sergio izan zuan barre egiten lehena...

IBON: Bai.

MARCOS: Aurrena, berak barre egin zian eta gero hik barre egin huen.

IBON: Bai.

MARCOS: Baina berak zergatik egin zuen barre?

IBON: Konturatu zelako ni barre egitekotan nengoela. Barrez hasi zuan niri konfiantza ematearren, hala nahiago baduk.

MARCOS: A, bera hasi bazen, ez dik balio.

Bera hasi bazen, hire barrea desaktibatzeke hasiko zuan.

Horrek ez dik esan nahi gustura egin zuenik barre.

IBON: Oso gustura egin zian.

MARCOS: Oso gustura egin zian, baina ez benetako arrazoia egatik.

IBON: Barkatu? Zein da benetako arrazoia? Ez diat ulertzen.

MARCOS: Sergiok ez zian barre egin bere koadroa barregarria delako, ez zenuten barre egin arrazoi berberagatik. Hik koadroagatik barre egin huen, eta berak hi poztearren, hire ikuspuntuan jartzearren, frogatzearren hik urtebete batean irabazten ez duan dirua inberti dezakeen esteta dela eta gai dela hire betiko adiskide ikonoklasta izaten jarraitzeko eta gainera barre egin dezakeala berarekin.

IBON: (*Isilune laburra*) Badakik gauza bat, Marcos? Koadroa, ez zaidak gustatzen...

MARCOS: Eskerrak!

IBON: Baina gorrotatu ere ez diat egiten.

MARCOS: Jakina. Ez zegok gorrotatzerik existitzen ez dena.

IBON: Ez, ez, bazeukak zerbait...

MARCOS: Zer dauka?

IBON: Zerbait. Ez duk «ezer ez».

MARCOS: Txantxetan ari haiz?

IBON: Ni ez nauk hi bezain zorrotza. Artelan bat duk, gogoeta bat zeukak atzean.

MARCOS: Gogoeta bat! Zein?

IBON: Prozesu oso baten emaitza duk...

MARCOS: Ja! Ja! Ja!

IBON: Bai... Ez duk bat-batean pintatutako koadroa, koadro horrek ibilbide oso bat dik atzean...

MARCOS: Ja! Ja! Ja! Sergioren pitokeria berberak errepikatzen ari haiz: gogoeta, prozesu, ibilbide... Berak esaten ditueanean, negargarria duk; baina hik esaten ditueanean, patetiko!

IBON: Badakik gauza bat, Marcos? Konfiantza gutxiago eduki beharko huke hire harropuzkeria horretan. Garratza eta desatsegina bihurtzen ari haiz.

MARCOS: Primeran. Gero eta gehiago gustatzen zaidak desatsegina izatea.

IBON: Aupa hi!

MARCOS: Gogoeta bat!

IBON: Hirekin ez zegok hitz egiterik.

MARCOS: ... Gogoeta bat horren atzean!... Hik kaka hutsa ikusten duk, baina egon hadi lasai, gogoeta bat zegok-eta atzean!... Hik uste duk gogoeta bat dagoela paisaia horren atzean?... *(Bere etxeko paretan zintzilik dagoen Guggenheimen koadroa seinalatuz)* Ez, ezta? Nahikoa esanguratsua duk. Nahikoa esplizitua. Ez zegok inolako gogoetarik! Oihalean zegok dena! ...

IBON: Hori koadro bat da, ala?

MARCOS: Horixe! Zer uste huen, ba, leioa zela?

IBON: Bai, ba!

(MARCOS altxatu + koadroa kendu)

IBON: Ostia, hi! Izugarri ondo zegok!

MARCOS: Gustatzen?

IBON: Asko.

MARCOS: Hiretzat.

MARCOS: Ibon, hik zer pentsatzen duk, zer sentitzen duk Antrios-a ikustean?

IBON: Bibrazio bat sentitzen diat.

MARCOS: Bibrazio bat!

IBON: Zer esan nahi duk, ez naizela gai koadroa nire kabuz baloratzeko?

MARCOS: Horixe.

IBON: Eta zergatik?

MARCOS: Ezagutzen haudalako. Eta bazekiat dena barkatzen saiatzen bahaiz ere, mutil normala haizela.

IBON: Ezin gauza bera esan higitik.

MARCOS: Ibon, begiraidak begietara.

IBON: Ari nauk.

MARCOS: Hunkitu egin hau Sergioren koadroak?

IBON: Ez.

MARCOS: Kattalinekin ezkonduko haiz, imajinatu koadro hori jasotzen duala oparizat. Poztuko hintzateke?... Poztuko hintzateke?...

IBON *bakarrik*

IBON: Ez, noski, ez nintzateke poztuko. Ez nintzateke poztuko; baina, oro har, aukera gutxi izan dut nik bizitzan «pozik nagoela» esateko. Saiatzen naiz gogoratzen... Saiatzen naiz gogoratzen noiz esan dudan nik azken aldiz: «pozik nago horrekin»...

Urte mordoia ehungintzan eman ondoren, orain saltzaile-lanpostu bat aurkitu dut handizka saltzen duen papertegi batean. Nire bizitza profesionala porrotez beteta dago, eta hamabost egun barru ezkonduko naiz, familia oneko neska atsegin eta distiratsu batekin.

Pozik egongo zara?, esan zidan egun batean amak, ez zaitu zoriontsu egiten laster ezkontzeak? Baliteke, ama, baliteke... Nola baliteke? Edo pozik zaude edo ez zaude pozik. Zer esan nahi du baliteke horrek?

MARCOS *bakarrik*

MARCOS: Garbi dago: Ignatia hartu behar nuen. Zergatik naiz hain kategorikoa?! Barru-barruan, ze inporta zait niri Sergio arte garaikideak guztiz liluraturik egotea?

Bai, kontu larria da, baina beste modu batean esatea neukan.

Bila nezakeen tonu samurragoa.

Ezin badut eraman nire lagunik onenak koadro zuri bat erostea, gutxienez saiatu beharko nuke ez eraso egiten.

Adeitasunez tratatu behar dut.

Hemendik aurrera, Sergiori adeitsuago esango dizkiot gauzak...

5. *SERGIOren etxean.*

SERGIO *bakarrik*

SERGIO: Nire ustez, ez da zuria.

Nire ustez esaten dudanean, objektiboki esan nahi dut.

Objektiboki, ez da zuria.

Hondo zuria du, eta marra grisaxka batzuk...

Gorri pixka bat ere badauka argi-argia.

Erabat zuria balitz, ez litzaidake gustatuko.

Marcosek zuria ikusten du... Motza baita.

Marcosek zuria ikusten du zuria dela tematu delako.

Ibonek ez. Ibonek ikusten du ez dela zuria.

Marcosek nahi duena ikustea dauka, «joan dadila pikutara».

5.1 SERGIO + MARCOS

SERGIO: Prest hago barre egiteko?

MARCOS: Bota.

SERGIO: Iboni gustatu zaiok Antrios-a.

MARCOS: Non dago?

SERGIO: Ibon?

MARCOS: Antrios-a.

SERGIO: Ikusi nahi duk berriro?

MARCOS: Ekartzak.

SERGIO: Banekian eskatuko hidala!...

(Irtzen eta koadroarekin itzultzen da. Isilume laburra koadroa ikusteko.)

Ibonek segituan ulertu zian.

MARCOS: Umm, umm...

SERGIO: Hi, ez diagu egun osoa emango gai honekin, bizitza laburra duk-eta. Irakurri al duk hau?

MARCOS: *La vida feliz*, Seneka.

(*Liburua hartu eta MARCOSen aurrean dagoen mahaiairen gainera botatzen du.*)

SERGIO: Irakurtzak, maisu-lana duk. Modernoa oso. Hau irakurrita, ez daukak beste ezeren beharrik. Nik orain ez zeukaat irakurtzeko astirik. Kontsulta dela, ospitalea dela, edo Bego dela... Orain erabaki dik astebururo ikusi behar ditudala haurrak —Begoren teoria berria: «haurrek aitaren premia dute»—. Ba, hori, ez zeukaat astirik apainkerietarako.

MARCOS: ... Bai, pinturarekin ere hala gertatzen ari zaik: hire mesederako, forma eta kolorea baztertu dituk. Zaborra besterik ez baitira biak.

SERGIO: Bai... Baina gai nauk hire Guggenheim hori ere estimatzeko. Bere (2.864.000) bi milioi zortziehun da hirurogeita lau mila titanio-plakaxo eta guzti. Atsegina duk.

MARCOS: Ez dik zipitzik balio, badakik.

SERGIO: Horrek ez zeukak zerikusirik!...

Agian, nire Antrios-ak ere putza balioko dik biharko egunean!...

MARCOS: Badakik? Gogoeta egin diat. Gogoeta egin eta nire ikuspuntua aldatu diat. Lehengoan, autobidean gidatzen ari nintzela, hirekin pentsatzen aritu ninduan eta esan nian nire artean: Aizak, Sergiok egin duena balitekek benetako egintza poetikoa izatea... Ez al da erabat poetikoa koadro hau hain modu inkoherentean erostea?

SERGIO: Hori duk sentiberatasuna, hori! Gozo hator gaur. Ez haut ezagutzen.

MARCOS: Ez, ez, benetan. *Mea culpa*.

SERGIO: *Mea culpa*, zergatik?

MARCOS: Biszeralegia naizelako; urduri nabilek, gauzen lehen planoak bakarrik ikusten diat... Edo jakinduria falta diat, hala nahiago baduk.

SERGIO: Irakurtzak Seneka.

MARCOS: Horra! Ikusten? Hor daukak adibidea. (*Piruleta bat ateratzen du poltsikotik. Papera kendu eta jaten hasten da*) Orain esan didak: «Irakurtzak Seneka.», eta horrek sutan jar nazakek. Gai izan naitekek nire onetik ateratzeko hik elkarrizketa honetan esan dualako: «Irakurtzak Seneka.» Zentzugabea duk!

SERGIO: Ez, bai zera, ez duk zentzugabea.

MARCOS: Ezetz?

SERGIO: Ez, hiri iruditu zaik...

MARCOS: Nik ez diat esan nire onetik atera naizenik.

SERGIO: Hik esan duk gai izan haitekeela...

MARCOS: Bai, bai, gai izan naitekeela.

SERGIO: ...gai izan haitekeela hire onetik ateratzeko, eta ulertzen diat. Ze, «Irakurtzak Seneka.» horretan iruditu zaik harrokeria zegoela nire aldetik. Hik esan didak jakinduria falta duala, eta nik erantzun diat: «Irakurtzak Seneka.» Nazkagarria duk!

MARCOS: Ba, pixka bat bai!

SERGIO: Begi-bistakoa duk jakinduria falta duala, zeren nik ez diat esan «Irakurtzak Seneka!», baizik eta «Irakurtzak Seneka.».

MARCOS: Noski.

SERGIO: Egia esan, umorea galtzen ari haiz.

MARCOS: Balitekek.

SERGIO: Ez daukak umorerik, Marcos. Ez daukak batere. Lehengoan, hitaz ari ginela, guztiz ados geundean horretan Ibon eta biok: umorea galdu duk.

Baina non demontre sartu da gizon hau? Ezin sekula garaiz iritsi! Ez gaituk helduko pelikula ikustera!

MARCOS: ... Ibonek uste du umorea galdu dudala?

SERGIO: Ibonek uste dik, eta baita nik ere, aspaldi honetan umore pixka bat falta zaiala.

MARCOS: Elkarrekin egon zineten azken aldian, Ibonek esan zian asko gustatzen zitzaiola hire koadroa eta niri umore pixka bat falta zaidala...

SERGIO: A, bai, bai, koadroa, bai, asko, hala esan zian. Eta benebenetan ari zuan... Ze nahasten duk piruletarekin?

MARCOS: Ignatia.

SERGIO: Orain homeopatian sinisten al duk?

MARCOS: Ez diat ezertan sinisten.

SERGIO: Ibon izugarri argaldu duk, ezta?

MARCOS: Kattalin ere bai.

SERGIO: Ezkontza horrek jan egingo ditik biak.

MARCOS: Balitekek.

SERGIO: Paula ondo dabil?

MARCOS: Oso, oso.

SERGIO: Oso, oso?

MARCOS: Oso, oso. (*Antrios-a seinalatuz.*) Barkatu, hor utzi behar al duk?

SERGIO: Ez zekiat. Ez diat erabaki oraindik. Ez zekiat. Hor nabarmenegi agian.

MARCOS: Markoa jarri behar diok?

SERGIO: (*Barrez, adeitsu*) Ez!... Ez, ez...

MARCOS: Zergatik?

SERGIO: Ez zaiolako jarri behar.

MARCOS: A, ez?

SERGIO: Artistaren nahia. Ez zaiok mugarik jarri behar.

Badik berezko ingurua...

(*Keinua egiten dio MARCOSi, koadroaren ertzera begira dezan.*)

Hator... Ikusten al duk?

MARCOS: Hori zer da, esparatrapua?

SERGIO: Ez, Kraft paperaren antzekoa... artistak berak egina.

MARCOS: Bitxia duk artista esatea.

SERGIO: Eta zer nahi duk esatea?

MARCOS: Artista esan duk, pintorea esatea huen, edo... nola du izena... Antrios...

SERGIO: Eta...?

MARCOS: Ez, artista esaten duanean, bazirudik... ez zekiat, tira, berdin dik. Ze pelikula ikusi behar dugu? Behingoagatik ondo legokek zerbait mamitsua ikustera joatea.

SERGIO: Hamar eta erdiak. Emanaldi guztiak hasita zeudek. Sinestezina duk zereginik ez duen pertsona bat berandu iristea beti. Zer esan behar huen?

MARCOS: E?

SERGIO: Artista esaten dudanean, bazirudik..., zer?

MARCOS: A! Ezer ez. Txatxukeria bat bota behar nian.

SERGIO: Ez, ez, esan.

MARCOS: Artista esaten duanean, bazirudik... izaki ukiezina dela, edo jainko moduko bat, edo...

SERGIO: Bai, niretzat hala duk: jainko bat!

MARCOS: A!

SERGIO: Zer espero huen, ba, halako dirutza hankabiko arrunt bati ematea?

MARCOS: Ez, noski.

SERGIO: Astelehenean, Reina Sofían izan ninduan. Badakik zenbat Antrios dauden Reina Sofían? Hiru! Hiru Antrios!... Reina Sofían! Hiru!

MARCOS: Zenbat?

SERGIO: Hiru! Eta nireak ez dik gutxiago balio!...

Aizak, proposamen bat: Ibon ez bada agertzen minutu bat baino lehen, joan egingo gaituk. Jatetxe galiziar zoragarri bat ezagutu diat.

MARCOS: Zergatik hago hain urduri?

SERGIO: Ez nagok urduri.

MARCOS: Urduri hago.

SERGIO: Ez nagok urduri. Hara, bai, urduri nagok, onartezina iruditzen zaidak Ibonen axolagabekeria, hitza betetzeko daukan ezintasun hori!

MARCOS: Egia esan, nirekin hago amorratuta, baina Ibon gizajoarekin ordaintzen ari haiz.

SERGIO: Ibon gizajoa, adarra jo nahi, ala! Hik ez nauk amorrarazten, zer dela eta amorrarazi behar nauk hik?

SERGIO: Amorrarazi egiten nau. Egia da.

Amorrarazi egiten nau.

Tonu melenga hori. Irribarre jakintsu hori hitz guztien atzean. Badirudi ahaleginak egiten ari dela atsegina izateko.

Lasai, ez hartu halako lanik!

Antrios-a erosi dudalako ote da?... Antrios-a erosi izanak sortu du ezinegon hau gure artean?...

Antrios-a erosi... Marcosen baimenik gabe?... Ausartzea ere!

Ez dit batere axola Marcosen baimenak! Marcos, bost axola hire baimenak!

MARCOS: Antrios-a erosi duelako ote da?...

Ez. Kontua aspalditik dator...

Hain zuzen ere, hitz hura ahoskatu huen egunetik; artelan bati buruz ari hintzen, eta han esan huen batere umorerik gabe: *dekonstrukzioa*.

Eta asaldatu ninduen ez duk terminoa bera: «dekonstrukzioa», baizik eta hitz hura ahoskatzeko erabili huen handitasuna.

Serio-serio esan huen, distantziarik gabe, ironia-izpirik gabe, *dekonstrukzioa*, zeinek eta hik, nire lagunak.

Eta egoerari nola aurre egin asmatu ez nuenez, esan nian misantropo bihurtzen ari nintzela, eta hik ustekabeko erantzun ezin txarragoa eman hidan...: Baina nor haiz hi, Marcos? Nondik hitz egiten duk?... Ze talaiatetik ausartzen haiz beste guztiak baztertzen? Nor haiz hi inor baino hobea haizela sentitzeko?

Egun hartan, jo eta burua txikitu behar nion ukabilkada batez. Eta behin lurrean, azkenetan zegoela, esan behar nion: Eta, hi, Sergio, zenbat balio duk hik lagun bezala, ze lagun-klase haiz hi, ez bahaiz konturatzen hire laguna hi baino hobea dela?

MARCOS: Jatetxe galiziarra esan duk, ez ote da astunegia? Koipe gehiegi... ezta?

Atea jotzen dute.

SERGIO: Hamarrak eta hogeita hemeretzi.

SERGIO*k atea zabaltzen dio IBONI.*

IBON *bizketan sartzen da.*

IBON: Dramatikoa da benetan, konpondu ezinezko arazoa: mundu guztiak agertu nahi du ezkontzaren gonbidapen-txartelean. Kattalinek izugarri maite du bere amaordea eta gonbidapen-txartelean azaltzea nahi du, horixe nahi duela, eta gainera amaordeak ez du onartzen ez agertzea aitaren ondoan, eta normala da, ama hilda baitago.

Nik, berriz, gorroto dut nire aitaren emazte berria eta ez dut haren izena jarri nahi gonbidapen-txartelean. Baina nire aitak ez du agertu nahi bere emaztea agertzen ez bada; prest dago bere izena bakarrik azaltzeko baldin eta Kattalinen amaordearen izenik jartzen ez badugu. Baina hori ezinezkoa da.

Orduan, nik proposatu dut senideen izenik ez jartzea, azken batean hogeitun urte ere ez ditugu, nahikoak gara gu biok gure ezkontzaren berri eman eta jendea gonbidatzeko. Kattalin histeriko jarri da, eta esan du hori sekulako masailekoa dela bere gurasoentzat, urreprezioan ordaindu behar baitute eztei-festa; eta batez ere bere amaordearentzat, bizitza osoan zaindu duelako Kattalin, nahiz ez izan bere alaba. Azkenean amore eman dut, nire borondatearen kontra erabat, neka-neka eginda, onartu dut nire aitaren emazte berria, nazkante hori, gonbidapen-txartelean agertzea.

Amari deitu diot kontatzeko. «Ama, gogotik saiatu naiz egoera honetara ez iristeko, baina ez dago beste konponbiderik: Maria Luisa gonbidapen-txartelean agertuko da.» *Maria Luisa agertzen bada, nik ez dut azaldu nahi.* «Ama, mesedez, ez lardaskatu gehiago gauzak.» *Nola ausartzen zara proposamen hori egitera? Zer nahi duzu, nire izena noraezean agertzea paperean, bakar-bakarrik, emakume abandonatua banintz bezala, eta nire izenaren gainean Maria Luisarena eta zure aitarena elkarri estu lotuta?* «Ama, lagun batzuk zain dauzkat. Utzi egin behar zaitut; hitz egingo dugu bihar lasaiago.» *Eta zergatik izan behar dut nik beti azken tximua?* «Baina zer diozu, ama, zu ez zara azken tximua.» *Horixe naizela. Gauzak gehiago ez lardaskatzeko esaten didazunean esan nahi duzu dena eginda dagoela, dena erabakita duzuela niri ezer galdetu gabe, nire ezketuan antolatuta duzue dena, Mertxe eraman onekoak men egin behar dio guztiari. Eta, gainera, oraindik ez dut ulertzen zer dela-eta daukazuen*

halako presa ezkontzeko. «Ama, lagunak zain dauzkat.» Bai, bai, zuk beti daukazu zeregin hoberen bat. Dena ni baino askoz garrantzitsuagoa da. Agur. Eta eskegi egin du.

MARCOS: Eskerrak!

IBON: Kattalin aldamenean neukan. [MARCOS: Jode!] Lasai, ez du ezer entzun. Eta galdetu dit: *Zer dio?* Eta nik: «Ba, ez duela gonbidapen-txartelean agertu nahi Maria Luisaren izena azaltzen bada. Eta normala da.» *Ni ez naiz horretaz ari. Zer dioen ezkontza?* «Ezer ez.» *Gezurretan ari zara.* «Ezetz, Katta, benetan: ez du gonbidapen-txartelean agertu nahi Maria Luisaren alboan.» *Deituiozu berriro, eta esaiozu nire partetik daukan seme bakarra ezkontzen zaiola bai, eta buru-estimua bazter batera utzi behar duela.* Eta nik: «Zergatik ez diozu gauza bera esaten zure amaordeari?» (*Oihuka*) *Horrek ez dauka zerikusirik! Ni naiz nire amaordearen izena agertzea nahi duena, ez bera, gaixoa, hain da maitekorra, jakingo balu zalaparta honen berri, berehalaxe eskatuko lidake bere izenik ez jartzeko txartelean. Deitu amari berriro. Berriro deitu diot.*

«Ama.» *Ibon, orain arte bizimodu ezin kaotikoagoa eraman duzu, eta orain bat-batean bururatu zaizu ezkontza-proiektu bat garatu nahi duzula. Eta horren ondorioz nik arratsalde eta gau oso bat eman behar dut zure aitarekin. Hamazazpi urte daramatzat gizon hori ikusi gabe, eta ez daukat inolako asmorik nire kokospea eta nire mitxelinak erakusteko; eta are gutxiago Maria Luisa aurrean dela. Badakizu golfean aritzen dela? Begira, nik ezin dut ezer egin Maria Luisa golfean aritu ez dadin; baina ezkontzaren gonbidapen-txartelean, mundu guztiak jaso eta aztertuko duen txartel horretan, bakarrik agertu nahi dut, Maria Luisa gabe. «Ama, zergatik zara hain zurekoia?» Nirekoia? Ni ez naiz nirekoia. Ibon, ez zara hasiko zu ere Herminia andrea bezala, harrizko bihotza omen daukat, familia honetan denok omen dugu harrizko bihotza. Hori esan dit Herminia andreak gaur goizean, eta dena ezetzko biribila eman diodalako eskatu didanean orduko hamabi euro ordaintzeko altan sartu gabe —burna galdu du erabat—. Eta orduan aukeraz baliatu da esateko familia honetan harrizko bihotza daukagula guztiok. Nola esaten dit hori orain, taupada-markagailua jarri berri diotela nire Andres gizajoari? Portzierto, ez diozu bidali postal ziztrin bat ere. Bai, noski, zuri barrea eragiten dizu, zuretzat dena da barregarria, hemen ez naiz ni nirekoia, Ibon, oraindik ere asko ikasi beharra daukazu zuk bizitzan. Segi, bihotza, segi zure laguntxoekin...*

Isilunea.

SERGIO: Eta?...

IBON: Eta ezer ez. Ez diagu ezer konpondu. Eskegi egin diat.
Minidrama Kattalinekin. Laburra, berandu nembilelako.

MARCOS: Zergatik uzten diek emakumeei hire bizitza gobernatzan?

IBON: Zer zekiat ba nik! Jota zeudek!

SERGIO: Argaldu egin haiz.

IBON: Noski. Lau kilo. Angustiagatik edo...

MARCOS: Irakurtzak Seneka!

IBON: *La vida feliz*. Hau zer da zientzia fikzioa?

MARCOS: Maisu-lana.

IBON: A, bai?...

SERGIO: Ez dik irakurri.

IBON: Bazekiat.

MARCOS: Ez, baina lehen Sergiok esan zidak maisu-lana dela.

SERGIO: Bai, maisu-lana esan diat, maisu-lana baita.

MARCOS: Bai, bai.

SERGIO: Maisu-lana duk.

MARCOS: Zergatik haserretzen haiz?

SERGIO: Ba, hiri entzunda ematen duelako edozein gauzari esaten diodala nik maisu-lana.

MARCOS: Bueno, bueno...

SERGIO: Halako ironiarekin esaten duk...

MARCOS: Bai zera!

SERGIO: Bai, bai, maisu-lana esateko erabiltzen duan tonu hori...

MARCOS: (*IBONi*) Hau burutik joanda zegok! Hik bai erabili dituala «moderno oso» hitzak.

SERGIO: Bai. Eta zer?

MARCOS: «Moderno» esan duk, eta bazirudik zerbaiti buruz aritzean ez dagoela gorago iristerik, hori dela maximoa, punturik gorena: modernoa.

SERGIO: Eta?

MARCOS: Eta garbi gera dadila ez dudala ezer esan «oso» horren inguruan. Konturatu haiz? Modernoa oso...!

SERGIO: Gaur begitan hartu nauk.

MARCOS: Ez...

IBON: Ez zarete liskartuko horregatik, gehiegizkoa litzateke!

SERGIO: Ez zaik deigarria egiten liburu hau duela ia bi mila urte idatzi zuen gizonak oraindik ere gaurkotasuna izatea?

MARCOS: Bai. Bai, bai. Horixe gertatzen zaiek klasikoei. Ibon, Sergiok esan zidak bere koadroak hunkitu egin hauela.

IBON: Bai..., dezente... Hi ez, bazekiat. Orduan, zer egin behar dugu? Berandu da zinera joateko, sentitzen dut.

MARCOS: Afaltzera goazak. Sergiok jatetxe galiziar zoragarri bat aurkitu dik.

IBON: Primeran.

SERGIO: Astunegia, agian?

MARCOS: Bai, beldur nauk astunegia ez ote den, baina prest nagok arriskatzeko.

SERGIO: Ezta pentsatu ere, astunegia dela uste baduk, beste batera joango gaituk.

MARCOS: Ez, probatzeko gogoia zeukaat.

SERGIO: Goazen ba jatetxe horretara nahi baldin baduzue.

Bestela, ez gara joango, eta kito!

(IBON*i*) Hik, Ibon, gogoia daukak galiziarra joateko?

IBON: Nik zuek nahi duzuen egingo dut.

MARCOS: Berak guk nahi duguna egingo dik, beti egiten dik guk nahi duguna.

IBON: Zer duzue? Berezi baino bereziago zaudete!

SERGIO: Arrazoi dik, ondo legokek behin edo behin hire iritzi propioa edukitzea.

IBON: Entzun, adiskideok, zuen arteko tirabirak nire lepotik konpontzea erabaki baduzue, alde egingo dut! Gaurkoz nahiko sesio jasan behar izan dut.

MARCOS: Umorez hartu, Ibon.

IBON: Umorez hartzeko? Nik ez zioat graziarik ikusten. Umorez hartu, oso barregarria.

MARCOS: Umore pixka bat falta zaik aspaldi honetan.

IBON: A, bai?!

SERGIO: Niri joan zait gosea.

IBON: Hara! Gaur zeharo aldrebestuta zaudete!...

SERGIO: Nahi duk nire iritzia ematea hire neskalaguntxoei buruz?

IBON: Zer gertatzen da nire neskalagunekin?

SERGIO: Denetan histerikoena, nire uste apalean, Kattalin duk.

MARCOS: Guztiz ados.

SERGIO: Orain agintzen uzten badiok, etorkizun beldurgarria daukak aurrean.

IBON: Ya! Eta zer nahi duk egitea?

MARCOS: Bertan behera utzi.

IBON: Ezkontza bertan behera utzi?!

SERGIO: Arrazoi dik.

IBON: Baina burutik al zaudete? Ezinezkoa da!

MARCOS: Zergatik?

IBON: Ba, ezinezkoa delako! Dena antolatuta zegok. Hilabete bat zeramaat papertegian lanean... (*Atzerantz, Topo egiten du Antrios-arekin*) Jode!

MARCOS: Eta horrek ze zerikusi dauka?

IBON: Papertegia Kattalinen osabarena duk. Ez zian premiarik inor kontratatzeko, eta are gutxiago ni.

SERGIO: Egintzak nahi duana. Nik abisatu diat.

IBON: Barkatu, Sergio, ez diat inolako asmorik hi mintzeko, baina emakume-kontuetan hi haiz aholkua eskatuko niokeen azken gizona. Ez diat uste hire bizitza pribatua hain eredugarria denik...

SERGIO: Horrexegatik ba.

IBON: Ezin diat ezkontza bertan behera utzi. Bazekiat Kattalin histeriko hutsa dela, baina bertuteak ere baditik. Merezimendu handiko bertuteak ni bezalako mutil batekin ezkontzeko... (*Atzerantz. Topo egiten du Antrios-arekin*) Hau hemen utzi behar al duk?

SERGIO: Ez zekiat.

IBON: Ba, jartzak hor!

SERGIO: Hor eguzkiak hondatu egingo likek.

IBON: Eta han?

MARCOS: Han, ilargiak.

IBON: Badakik, Sergio? Gaur hirekin gogoratu nauk. Lantokian kartel baten mila eta bostehun erreprodukzio egin ditiagu: lore zuriak, erabat zuriak, hondo zuriaren gainean.

SERGIO: Antrios-a ez duk zuria.

IBON: Ez, horixe ez dela zuria. Esate bat duk.

MARCOS: Ibon, hiretzat koadro hau ez da zuria?

IBON: Ez, erabat ez...

MARCOS: A. Eta ze koloretakoa ikusten duk?...

IBON: Koloreak ikusten ditiat... Horia, grisa, marra okre batzuk...

MARCOS: Eta kolore horiek hunkitu egiten haute.

IBON: Bai..., kolore horiek hunkitu egiten naitek.

MARCOS: Ibon, ez daukak irmotasunik. Ahula eta hibridoa haiz.

SERGIO: Zergatik haiz hain agresiboa Ibonekin?

MARCOS: Ipurgarbitzailea delako. Diruak eta berak kulturatzat hartzen duen guztiak liluratuta bizi duk, eta nik botaka egiten diat kultura horren gainean, lasai asko.

SERGIO: ... Jakin liteke zer duan?

MARCOS: (IBON*i*) Nola esan dezakek hori, Ibon?... Nire aurrean.
Nire aurrean, Ibon.

IBON: Hire aurrean, zer?... Hire aurrean, Marcos, zer?...

Bai, jauna. Ikusi egiten ditiat kolore horiek. Zer gertatzen da!
Beti hire iritzia inposatu nahian.

MARCOS: Nola esan dezakek, nire aurrean, kolore horiek ikusten dituala?...

IBON: Egia delako.

MARCOS: Egia? Kolore horiek iritsi egiten zaizkik?

IBON: Bai. Kolore horiek iritsi egiten zaizkidak.

MARCOS: Kolore horiek iritsi egiten zaizkik, Ibon?!

SERGIO: Kolore horiek iritsi egiten zaizkiok! Eskubide osoa zeukak!

MARCOS: Ez zeukak eskubiderik kolore horiek iristen zaizkiola esateko, gezurra delako.

IBON: Ez zaizkidala iristen kolore horiek?!

MARCOS: Ez zegok kolorerik. Ez dituk ikusten. Beraz, ez zaizkik iristen.

SERGIO: Baina zein haiz hi, Marcos?!... Zein haiz hi hire legea inori ezartzeko? Ez duk-eta deus estimatzen: mundu guztia gorroto duk, eta aho betean esaten duk hi ez haizela hire garaiko gizona.

MARCOS: Zer esan nahi du nire garaiko gizona izateak?

IBON: Aio. Ni banoa.

SERGIO: Nora hoa?

IBON: Banoak. Ez diat zertan agoantatu zuen arteko «ika-mikak».

SERGIO: Geratu hadi hemen. Ez kikildu orain. Alde egiten baduk, arrazoia emango diok.

(IBON geratu egiten da, zalantzati.)

Badakik nor den bere garaiko pertsona? Bizitzea egokitu zaion garaian bizi dena.

MARCOS: Hori alukeria! Eta nola biziko da ba pertsona bat bizitzea egokitu ez zaion garaian? Esplikaidak.

SERGIO: Hara, pertsona bat bere garaikoa duk baldin eta aukera ematen badu hogei urte barru, edo ehun urte barru bere garaiaren ordezkaria izan zela esateko.

MARCOS: Hmm, hmm.

Eta horrek zertarako balio du?

SERGIO: Zertarako balio duen horrek?

MARCOS: Zertarako balio dit niri egunen batean esateak: Marcos bere garaiaren ordezkaria izan zen?

SERGIO: Baina, koitadu hori, kontua ez haiz hi. Hik ez duk deus pintatzen! Bere garaiko pertsona duk, hik miresten dituan gehienak bezala, gizadiari ekarpenen bat egin diona...

Bere garaiko gizonarentzat pinturaren historia ez duk bukatzen Bilboko koadro hiperrealista batekin.

MARCOS: Bilbo ez, Guggenheim. Eta oparitu egin diat.

SERGIO: Berdin dik. Bere garaiko gizonak eboluzioak berezko duen dinamikan hartzen dik parte...

MARCOS: A. Hik, esate baterako, parte hartzen duk eboluzioak berezko duen dinamikan?

SERGIO: Ba, bai.

MARCOS: Eta Ibonek?...

IBON: Ez, motel, ez. Izaki ahul eta hibrido batek ez dik ezertan parte hartzen.

SERGIO: Ibon ere, bere modura, bere garaiko gizona duk.

MARCOS: Eta zertan oinarritzen haiz Iboni buruz hori esateko, hormetan zintzilik dauzkan zabor horietan?

IBON: Ez dituk zaborra!

SERGIO: Bai, zaborra dituk.

IBON: Ez!

SERGIO: Ibonek bizimodu bat ordezkatzeko dik, pentsamolde bat, erabat gaur eguneko. Eta hik ere bai, noski. Barkatu, baina hi ere hire garaiko gizon tipikoa haiz. Eta zenbat eta bestelako nahiago, orduan eta halakoago.

MARCOS: Orduan, ondo zegok dena. Non dago arazoa?

SERGIO: Arazoa hik daukak. Gizartetik aparte bizitzean oinarritzen duk hire duintasuna. Eta ez duk asmatzen. Ez al diok ezer esan behar Iboni?

MARCOS: Horri? Ibon koldar hutsa duk.

Hitz horiek entzun ondoren, IBONEk erabaki bat hartzen du.

Irteten da ziztu bizian.

Etenaldi laburra.

SERGIO: (*Txaloak*)

Isilunea.

MARCOS: Ni ere banoak...

SERGIO: Hemen hi haiz koldar bakarra... Eraso egin diok bere burua defendatzeko gauza ez den mutil horri... Ederki asko dakik hik hori.

MARCOS: Arrazoi duk... Begira, oraintxe ez diat ezer ulertzen, jadanik ez zekiat zerk lotzen nauen Ibonekin... Jadanik ez zekiat ze harreman-mota daukadan mutil horrekin.

SERGIO: Ibon den bezala agertu duk beti.

MARCOS: Ez. Lehen ero-ukitu bat zeukaan, inkongruentzia-ukitu bat... Hauskorra zuan, eta eromen horrek armarik gabe uzten nindian...

SERGIO: Eta nirekin?

MARCOS: Hirekin, zer?

SERGIO: Badakik zerk lotzen hauen nirekin?...

MARCOS: ... Luze joko likek galdera horri erantzuteak...

SERGIO: Hasi.

Isilune laburra.

MARCOS: ... Asko sentitzen diat Ibon mindu izana.

SERGIO: Hara! Azkenean errukizko hitz bat hire ahoan... eta gainera egintzak kontu hormetan zintzilik dauzkan zabor horiek Kattalinek pintatu zituela.

MARCOS: Ez da izango?!

SERGIO: Bai!

MARCOS: Kaka zaharra!

SERGIO: Sagardo pixka bat?

MARCOS: Ez. Mila esker.

Etenaldi laburra.

Atea jotzen dute.

SERGIO *irekitzera doa.*

IBON *sartzan da egongelan, eta lehen bezala, hizketan hasten da sartu orduko.*

IBON: Ibonen itzulera! Igogailua okupatuta zegoen, orduan eskaileretan behera oldartu naiz, eta saltoka nindoala mailak hirunaka jaitsiz, errepikatzen ari nintzen: koldarra, hibridoa, irmotasunik gabea. Eta pentsatu dut nire artean: ba, orain pistola batekin bueltatu, akabatu, eta ikusiko diagu ahula eta ipurgarbitzailea ote haizen. Iritsi naiz beheko solairura, eta esan diot nire buruari: stop, stop, stop, egon hadi, motel, ez dituk eman azkeneko sei urteak psikoanalistaren kontsultara joaten hire lagunik onena akabatzen amaitzeko, eta ez dituk eman azkeneko sei urteak psikoanalistaren kontsultara joaten ez konturatzeko hitz-jario zoro horren atzean ezinegon existentzial sakona ezkututzen dela. Hasi naiz eskailerak igotzen, barkamenez beterik, eta pentsatu dut: Marcos laguntza eske ari duk, lagundu behar diok, kostatzen ahala kostatzen... Badakizue? Aurrekoan zuetaz hitz egin nion Osbaldori.

SERGIO: A, gutaz hitz egiten duk hire psikoanalistarekin?

IBON: Osbaldorekin denetaz hitz egiten diat.

SERGIO: Eta zergatik hitz egiten diok gutaz?

MARCOS: Debekatu egiten diat nitaz hitz egitea ergel horri.

IBON: Ja, ja, ja. Hik ez didak ezer debekatuko.

SERGIO: Zergatik hitz egiten diok gutaz?

IBON: Zuek mokoka aritzen zarete beti, eta pentsatu nian Osbaldok agian lagunduko zidala gauzak argiago ikusten...

SERGIO: Eta zer dio «boludo» halako horrek?

IBON: Oso gauza dibertigarria esan zian...

MARCOS: Baina jende horrek bere iritzia ematen du, ala?!

IBON: Ez, ez dik ematen, baina niri eman egin zidaan, eta are gehiago, keinu batez osatu zian, zeinek eta berak, ez dik-eta sekula keinurik egiten. Hotzak zegok beti, nik beti esaten zioat: mugi zaitez, gizona! Bestela...

SERGIO: Bai, oso ondo, baina zer dio?

IBON: Zeinek?

MARCOS: Eta guri zer inporta zaigu?

SERGIO: Jakin egin nahi diat ze arraio esan zuen kaiku horrek!

IBON: A! (*Jakaren patrikan bilatzen du.*)
Jakin nahi duzue?...

Paper tolestu bat ateratzen du.

MARCOS: Apuntatu egin duk?!

IBON: ... (*SERGIOri*) «Si yo soy yo porque soy yo, y vos sos vos porque sos vos, yo soy yo y vos sos vos. (*MARCOSi*) Por el contrario, si yo soy yo porque vos sos vos, y vos sos vos porque yo soy yo, entonces ni yo soy yo ni vos sos vos...»
Ulertzen zergatik apuntatu nuen?

Isilune laburra.

MARCOS: Zenbat ordaintzen diok?

IBON: Laurogei euro saioko, astean bitan.

MARCOS: Polita.

IBON: Eta eskura. Freud-ek esan omen zian sendatzeko sentitu egin behar dela diruak nola ihes egiten duen eskuetatik.

MARCOS: Zorionekoa hi halako fenomenoarekin topo egin dualako.

SERGIO: Bai!... Egintzak mesede bat: emai guk formula horren kopia bana.

MARCOS: Bai. Oso baliagarria izango zaiguk.

IBON: (*Papera kontu handiz tolestuz berriro.*)
Oker zaudete. Oso sakona da. Oso, oso!

MARCOS: Osbaldorengatik itzuli bahaiz beste masaila eskaintzera, eskerrak eman beharrean hago. Txotxongilo bihurtu hau, baina hi pozik baldin bahago, horrek balio dik.

IBON: (*SERGIOri*) Eta hori dena, onartu nahi ez duelako nik gustuko dudala hire Antrios-a.

SERGIO: Ze inporta zait ba niri zuek biok zer pentsatzen duzuen koadroaz.

IBON: Zenbat eta gehiago begiratu, orduan eta gehiago gustatzen zaidak.

SERGIO: Utzi dezagun koadroa bake santuan behingoz. Ados?

MARCOS: Baina zergatik haserretzen haiz?

SERGIO: Ez nauk haserretzen, Marcos. Zuek eman duzue zuen iritzia. Akabo arazoa!

MARCOS: Ikusten ze gaizki hartzen duan.

SERGIO: Ez diat gaizki hartzen. Neka-neka eginda nagok.

MARCOS: Horrek mintzen bahau, besteen iritziaren menpe bizi haizen seinale...

SERGIO: Leher eginda nagok, Marcos. Elkarrizketa hau antzua duk...

IBON: Goazen afaltzera!

SERGIO: Joan zuek. Zergatik ez zoazte biok bakarrik?

IBON: Ezta pentsatu ere! Behin elkartuko hirurok...

SERGIO: Ikusten diat zertarako balio duen...

IBON: Ez diat zipitzik ulertzen. Zer gertatzen da? Lasai gaitezen. Zertara dator sesio hau? Eta koadro batengatik.

SERGIO: Ez al haiz konturatzen sua pizten ari haizela hire «lasai gaitezen» jesuitiko horiekin! Hori al da hire estilo berria?

IBON: Ez duzue lortuko oreka galaraztea.

MARCOS: Hunkigarria. Nik ere bisita egin behar zioat Osbaldo horril...

IBON: Ezinezkoa, lanez gainezka zebilek.

Bat-bateko bultzada batek eraginik, SERGIOk Antrios-a hartu eta lehen zegoen tokira eramaten du, egongelatik kanpora.

Berebalaxe itzultzen da.

IBON: Zergatik eraman du koadroa?

MARCOS: Ez gaituk nor koadroa ikusteko...

SERGIO: Horixe bera.

MARCOS: Edo beldur haiz ez ote duan azkenean nire begiekin ikusiko...

SERGIO: Ez. Eta frogatu egingo diat gainera. Badakik zer dioen Aristoteleseke?

MARCOS: Ez zaidak inporta zer dioen Aristoteleseke.

SERGIO: Aristoteles ere ez duk gogoko?

MARCOS: Ezidak aipatu Aristoteles.

SERGIO: Baina hik gogoko duk Aristoteles!

MARCOS: Bost axola niri zer dioen Aristoteleseke.

SERGIO: Hiri esker ezagutu nian-eta. Heuk hitz egin hidan lehen aldiz Aristotelesi buruz!

MARCOS: Ezidak aipatu Aristoteles, ez zaidak inporta zer dioen Aristoteleseke. Paso egiten diat Aristoteleseze.

SERGIO: Hik zertaz ez duk paso egiten?

MARCOS: Koadro hori erosi izanaz. Bost kilo gastatu izanaz kaka zuri horretan.

IBON: Ez hasi berriro, Marcos!

SERGIO: Hara, Marcos, oraintxe esango diat nik zertaz ez dudan paso egiten. Ez diat paso egiten hire jokabideaz. Aurrekoan, hitz-erdika esan hidan, irribarretxo sarkastiko batekin, nik neuk ere barregarritzat jotzen nuela koadroa.

MARCOS: Egia duk. Nola liteke koadro hori gustatzea? Ez zaidak buruan sartzen.

IBON: Baina, zergatik?

MARCOS: Sergio maite dudalako, eta ez naizelako gai koadro hori erosi duen Sergio maitatzeko.

SERGIO: Zergatik esaten duk koadroa erosi duen Sergio? Zergatik ez duk esaten koadroa maite duen Sergio?

MARCOS: Ezin diat esan maite duala, ezin diat sinetsi hik koadro hori maite izatea.

SERGIO: Orduan, zergatik erosi dut, maite ez badut?

MARCOS: Hortxe zegok koska.

SERGIO: (IBON*i*) Astapotroa duk gero!

(MARCOS*i*) Eta ez zaik burutik pasatu ere egin niri benetan gustatzen bazait koadroa, min ematen didala hire iritzi gupidagabeak?

MARCOS: Ez.

SERGIO: Paulari buruz zer pentsatzen nuen galdetu hidan hartan —afari osoa eman behar izan nian entzuten, zeinek eta nik, neska horrek nola esaten zuen biriketako minbizia homeopatia bidez senda daitekeela—, ba, orduan ez nian esan zatarra iruditzen zaidala, gogaikarria eta batere xarmarik gabea. Eta esatea neukaan.

MARCOS: Hori pentsatzen duk Paulari buruz?

SERGIO: Hik ze uste duk?

IBON: Ezetz, ez duala hori pentsatzen! Ezinezkoa duk Paulari buruz hori pentsatzea!

MARCOS: Erantzuidak.

SERGIO: Konturatzen al haiz ze mingarria den?

MARCOS: Benetan pentsatzen duk Paulari buruz esan berri duan hori?

SERGIO: Okerrago oraindik.

IBON: Ezetz ba!! Txantxetan ari duk. Txantxetan ari haiz, ezta? Ikusten, txantxetan ari duk.

MARCOS: Okerrago, Sergio? Azalduko didak zer den gogaikarria baino okerragoa?...

SERGIO: A! A! Ikusten, hitaz ari garenean garratzagoa duk hitzen zaporea!... Ezta?...

MARCOS: Sergio, azalduidak zer den gogaikarria baino okerragoa...

SERGIO: Ba, tabakoaren kea uxatzeko daukan modu hori...

MARCOS: Tabakoaren kea uxatzeko daukan modua...

SERGIO: Bai. Kea uxatzeko moduak galtzen dik erremediorik gabe.

MARCOS: Sergio, argituidak hori nire senetik atera baino lehen.

SERGIO: Beste edozein emakumek esango likek: Barkatu, keak nazka pixka bat ematen dit, urrunduko al duzu hautsontzia? Paulak ez, Paulak ez dik hitzik esaten, ez zegok prest inoren aurrean makurtzeko, Paulak airean marrazten dik bere erdeinua, keinu neurtu batez, dotorezia gaizto batez adierazten dik: Erre, erre, zurekin alferrik da. Eta horrek pentsarazten dik zerk ematen ote dion benetan nazka, tabakoak ala hik heuk.

IBON: (*MARCOS*) Exageratzen ari duk!...

SERGIO: Konturatzen al haiz? Ez dik esan oker nabilela, exageratzen ari naizela esan dik. Kea uxatzeko modu horrek izaera hotza erakusten dik, gauza guztien gaintik eta mundutik aparte bizi dela erakusten dik. Eta hik ere joera bera daukak. Penagarria duk, Marcos, penagarria duk hain emakume aldrebesarekin topo egin izana...

IBON: Paula ez duk aldrebesa!...

MARCOS: Paulari buruz ari haiz, nik aukeratu dudan emakumeari buruz ari haiz esaten hitz onartezin horiek, zergatik eta tabakoaren kea uxatzeko modua eraman ezin dualako bakarrik?...

SERGIO: Bai.

IBON: Ez.

MARCOS: Sergio, exijitu egiten diat erretiratzeko orain esan duana.

SERGIO: Bikote xelebrea osatzen duzue. A ze fosil-parea!

MARCOS SERGIOren gainera oldartzzen da.

IBON, berriz, bion artean sartzera oldartzzen da.

Ondoren, borroka barregarri bat, oso laburra, IBONek jasotzen duen kolpe zoritxarreko batekin amaitzen dena.

IBON: Ai, kaka zaharra!... Kaka zaharra!...

SERGIO: Ea erakutsi, erakutsi... (IBON aieneka. Neurritz gain, antza denez) Baina... utzidak ikusten!...

IBON: ... Hau ez da normala. Zuek bezalako bi gizon halako portaera burugabea!

SERGIO: Hago lasai.

IBON: Min ikaragarria zeukaat, benetan!... Horixe bakarrik behar nian, zuek tinpanoa zulatzea!

SERGIO: Baita zera ere!

IBON: Eta hik zer dakik? Ez haiz otorrinoa!... Zuek bezalako bi gizon. Bi gizon karreradunak!...

SERGIO: Lasaitu hadi behingoz.

IBON: Ezin duk pertsona bat kondenatu tabakoaren kea uxatzeko moduagatik...

SERGIO: Horixe kondenatu dezakedala.

IBON: Baina hau izugarria duk, ez zeukak batere zentzurik!

SERGIO: Zentzua zer den ere ba ote dakik hik? Ez daukak ezer.

IBON: Horixe, barruan izango diat sekulako odoljarioa. Baina zer duzue?... Zer gertatu da zuen artean? Zerbait gertatuko zuan biok erabat jota egoteko.

SERGIO: Koadro bat erosi diat Marcosen baimenik gabe.

IBON: Nahikoa da!... Irteerarik gabeko gurpil zoro batean sartu zarete biok... Maria Luisa eta biok bezalaxe. Munduko harremanik patologikoena!

SERGIO: Barkatu, zein zen Maria Luisa?

IBON: Nire aitaren emazte berri nazkante hori!

SERGIO: A. Sagardo pixka bat?

IBON: Ez!

Isilune laburra.

MARCOS: Zergatik ez hidan esan bere garaian zer pentsatzen huen Paulari buruz?

IBON: Jodeeeee!

SERGIO: Hi ez mintzeagatik..

MARCOS: Ez, ez, ez...

SERGIO: Ez, ez, ez, zet?

MARCOS: Ez. Galdetu nianean zer pentsatzen huen Paulari buruz, hik erantzun hidan: nolako lapikoa halako estalkia.

SERGIO: Bai... Ta?

MARCOS: Eta hori positiboa zuan hire ahoan.

SERGIO: Bai, noski...

MARCOS: Baina gaur Paula epaitzen ari haiz, egia esan ni epaitzen ari haiz.

SERGIO: Ez diat ulertzen.

MARCOS: Horixe ulertzen duala.

SERGIO: Arrastorik ere ez.

MARCOS: Aspaldi honetan itsututa habil nobedade bila, eta ondorioz «gauza guztien gainetik» eta «mundutik aparte» bizi nauk, «fosildu» egin nauk...

IBON: Jasanezina da!... Burmuina zulatzen ari zait!

SERGIO: Aspirina bat nahi?

IBON: Utzi bakean! Segi zuen elkarrizketa zentzugabe horrekin, ez egin kasurik.

MARCOS: Ez duk erraza.

IBON: Erruki pitin bat izan dezakezue, ezta?

SERGIO: Niri ondo iruditzen zaidak hi Paularekin egotea. Ez zioat ezer txarrik ikusten hi Paularekin bizitzeari.

MARCOS: Ez daukak inongo motiborik.

SERGIO: Eta hik, ni Antrios-arekin bizitzeari bai!

MARCOS: Bai. Nik ez haut bazterrean utzi Paulagatik.

SERGIO: Ze esan nahi duk, nik bazterrean utzi haudala Antrios-agatik?

MARCOS: Bai. Antrios-agatik... eta gainerakoagatik.

SERGIO: (IBON*i*) Ibon, hik ulertzen al duk zertaz ari den?...

IBON: Berdin zidak, «frenopatiak» jota zaudete biok.

MARCOS: Garai batean, ez litzaiake bururatu ere egingo koadro hori erostea.

SERGIO: Zer esan nahi duk «garai batean» horrekin?

MARCOS: Besteengandik bereizten ninduan garaian, gauzak nire modura ikusten hituen garaian.

SERGIO: Ezagutu dugu gu biok halako garairik?

MARCOS: (IBON*i*) Bihozgabea duk!

SERGIO: Ez, benetan esaten diat, txundituta nagok.

MARCOS: Ibon muskuilu eginda egongo ez balitz, nire alde aterako lukek.

IBON: Segi, segi, muskuilu hau itxita dago.

MARCOS: (SERGIO*ri*) Garai batean, harro hengoan ni hire laguna nintzelako... berezia nintzelako, aparte mantentzeko joera nuelako. Atsegin huen ni basati agertzea jende aurrean, hik bizimodu ezin

normalagoa huen-eta. Ni aitzakiatzat erabiltzen ninduan. Baina orain familia berri bat aurkitu duk. Hire izaera idolozeak helburu berriak aurkitu ditik!... Artista!... Dekonstrukzioa!...

Isilune laburra.

IBON: Zer da dekonstrukzioa?...

MARCOS: Galdeiek Sergiori, erabat menderatzen dik gaia...
(SERGIORI) A! Barrez ari haiz, horrela barre egiten duanean, itxaropena berreskuratzen diat, inozoa ni...

IBON: Egidazue mesede bat: bakeak egin biok! Pasa dezagun gau atsegin bat. Honek ez du bururik ez hankarik!

MARCOS: Ni nauk erruduna. Azken bolada honetan gutxitan egon gaituk elkarrekin. Ni kanpoan ibili nauk; hi, berriz, aberaskumeen goi-mailako klasearekin hasi haiz tratuan: Lezama-Legizamon familia... Ibarra-Mendoza familia...

SERGIO: Ez, ez, ez, ez, bai zera, hori ez duk inolaz ere haien mundua, ez zaiek gustatzen arte kontzeptuala...

MARCOS: Tira, ez dik inporta.

SERGIO: Bai, inporta dik.

MARCOS: Jada ez zioagu elkar ulertzen elkarrizketa simple batean ere.

SERGIO: Ez nekian —benetan esaten diat, orain ari nauk deskubritzen—, ez nekian zein puntutaraino nengoen hire babespean...

MARCOS: Ez. Nire babespean, ez... Lagunak zaindu egin behar ditiagu. Bestela, ihes egiten zigutek... Begira Ibon gizajoa, izugarri atsegin genian haren jarrera axolagabea, eta orain beldurti bihurtu zaiguk, paper-saltzaile... senar.

SERGIO: Konturatzen al haiz zer esaten ari haizen? Dena hire ikuspegira egokitzen duk! Noiz ikasi behar duk pertsonak direnagatik estimatzen, Marcos?

MARCOS: Direnagatik, zer esan nahi duk horrekin?

SERGIO: Diren bezala izateagatik.

MARCOS: Baina nolakoak dira?! Zer dira benetan?!... Nik haiengan jarri dudan itxaropenaz aparte, benetan, zer dira?... Neuk moldatu behar izan zaituztet... Baina alferrik. Lehenago edo geroago, txoritxoak habia utzi eta Lezama-Legizamon familiaren jauregira zoak afaltzera eta estatus berria lortu nahian, zer eta koadro zuri bat erosten dik.

IBON: Psikologian, horrek izen bat zeukak. «Delirio de grandeza».

SERGIO: Alegia, hemen gaudela, hamabost urtean irau duen harreman bati akabera ematen...

MARCOS: Bai.

IBON: Tamalgarria...

MARCOS: ... Nik ez diat sinisten gaur eguneko artea gidatzen duten balioetan... Berritasunaren legea. Ezustekoaren legea... Ezustekoa gauza hila duk. Jaio orduko hilda zegok. Ni ere ezusteko bat izan ninduan hiretzat...

SERGIO: Ze ari haiz esaten?

MARCOS: Egia esan, ezustekoak luze irau zian.

IBON: Osbaldo jeinu bat da. Aurreikusita zeukan hau guztia, benetan.

MARCOS: Ibon, utziok arbitroarena egiteari, utziok elkarrizketa honetatik kanpo hagoela sentitzeari.

IBON: Zer nahi duk, parte hartzea? Ezta pentsatu ere, ez duk nire ardura. Nik ja tinpanoa zulatuta zeukaat, eta orain konpon itzazue zuen kontuak biok bakarrik!

MARCOS: Ikusten, Ibon? Badakik zer ez dudan agoantatzen higan — orain arte esan dudan guztiaz gainera— gu biok maila berean jarri nahi izatea. Berdinak, berdin-berdinak nahi gaituk, hire koldarkeria baztertu ahal izateko. Berdinak eztabaidan, berdinak aspaldiko adiskidetasunean. Baina ez gaituk berdinak. Ibon, bandoa aukeratu beharra daukak.

IBON: Aukeratu diat.

MARCOS: Primeran.

SERGIO: Nik ez diat monagilorik behar.

IBON: Zergatik elkartzen gara elkar gorroto badugu?! Elkar gorroto dugu, hori garbi dago! Bueno, nik ez zaituztet gorroto, baina zuek, zuek elkar gorroto duzue! Eta ni gorroto nauzue! Orduan, zergatik elkartzen gara?... Ni prest nengoen gau atsegina pasatzeko, aste

osoa kezka burugabez josita eman ondoren, prest nengoen nire lagunak onenak aurkitu eta zinera joateko, eta barre egiteko, eta desdramatizatzeko...

SERGIO: Ni, ni, ni...konturatu haiz beti hire buruaz ari haizela?

IBON: Eta zuek zertaz aritzen zarete, ba?! Mundu guztiak hitz egiten dik bere buruaz!

SERGIO: Ederki izorratu diguk gaua!

IBON: Gaua izorratu dizuet, nik?!

SERGIO: Bai, hik.

IBON: Nik izorratu dizuet gaua?! Nik?!

MARCOS: Bai, bai, hik.

IBON: Ni naiz gaua izorratu dizuenak?!...

SERGIO: Zenbat aldiz errepikatu behar duk?

IBON: Erantzuidazue, ni naiz gaua izorratu dizuenak?!...

MARCOS: Hara, hiru ordu laurdeneko atzerapenarekin etorri haiz, ez diguk barkamenik eskatu, ito egin gaituk hire etxeko arazoekin...

SERGIO: Bai, eta hire jarrera epel eta neutro horrek astakeria latzak egitera behartu gaitik Marcos eta biok.

IBON: Hik ere bai! Hik ere sartu behar duk?!

SERGIO: Bai, horretan erabat ados nagok Marcosekin. Hik sortu dituk hemen gatazkaren baldintzak.

MARCOS: Etorri haizenetik, arrazoi otzan eta melengaren ahotsa inposatu nahi izan diguk, jasanezina duk.

IBON: Negarrez hasi naiteke, badakizue?... Negarrez hasi naiteke oraintxe bertan... eta zori-zorian nago.

MARCOS: Egintzak negar.

SERGIO: Egintzak negar.

IBON: Egintzak negar! Egintzak negar!!...

MARCOS: Arrazoi guztiak dituk negarrez hasteko: infernuko jainkosa batekin ezkonduko haiz eta galdu dituk hire betiko lagunak.

IBON: A, noski, amaitu da dena!

MARCOS: Herorrek esan duk: zergatik elkartu gorroto badugu elkar?!

IBON: Eta nire ezkontza?! Zuek zarete lekukoak, gogoratzen?!

SERGIO: Garaiz habil aldatzeko.

IBON: Ezin diat! Zuen izenak eman ditiat!

MARCOS: Aurkituko dituk beste batzuk azken orduan.

IBON: Ez zegok hori egiterik!

SERGIO: Egongo ez duk ba!...

IBON: Ez!...

MARCOS: Joango gaituk, ez kezkatu.

SERGIO: Bertan behera utzi beharko huke ezkontza hori.

MARCOS: Arrazoi dik.

IBON: Kaka zaharra! Zer egin dizuet nik, kaka zaharra!!...

Negarrari ematen dio.

Etenaldi bat.

Bazenuten hamabiaren ondoren hastea liskarrean, baina ez, ederki moldatu zarete nire ezkontza boikotatzeko. Zorigaitzeko ezkontza! Lau kilo galarazi dizkit, eta zuek suntsitu egin nahi duzue behin betiko. Arrazoi bakarra nuen pozik egoteko: zuek biok ezkontzara etortzea, eta orain ederki moldatu zarete batak bestea txikitzeko, zorionekoa ni benetan... (MARCOS*i*) Hik zer uste duk, atsegin ditudala kleenexak, konfetiak, karpetak? Zer uste duk, gizon arrunt bat jaiki daitekeela egun batean pinotxo papera saltzeko gogoarekin?!... Zer nahi duk egitea? Berrogei urte bete bitartean baboarena egin diat, a, noski, hori bai, hiretzat dibertigarria zuan, nire lagunek primeran pasatzen ziaten nire anekdota eta txisteeekin; baina, iluntzean, nor geratzen da bakar-bakarrik txakur baten antzera? Gauean nor itzultzen da bakar-bakarrik bere txokora? Ba, bufoi bakarti hau. Eta irratia pizten diat, eta telebista, eta hizketan egiten duen edozein gauza, eta erantzungailura iristen naizenean zer topatzen diat? Nire ama. Nire ama eta nire ama.

Isilune laburra.

MARCOS: Etzak hain estu hartu, motel.

IBON: Hain estu ez hartzeko! Nork jarri nau egoera honetan?! Nire arima ez duk zuena bezain delikatua. Nor naiz ni? Pisu arin bat, irmotasunik eta iritzirik ez duen alproja bat. Horixe nauk: alproja bat!

MARCOS: Hago lasai...

IBON: Ezidak esan lasai egoteko. Ez diat batere arrazoirik lasai egoteko. Erotu nahi banauk, esaidak lasai egoteko! «Hago lasai» duk bere onetik atera den bati esan dakiokeen gauzarik txarrena! Ez naiz zuek bezalakoa, ez dut botererik nahi, ez dut erreferentzia izan nahi, ez dut bizitza propiorik nahi, nahikoa daukat zuen laguna izatearekin, Ibon alproja, alproja maitagarria eta on-puska. Baina alproja!

Isilunea.

SERGIO: Patetismoa alde batera utziko bagenu...

IBON: Bukatu diat.

Badaukak mokadutxoren bat? Ziplo ez erortzeko.

SERGIO: Oliba batzuk.

IBON: Ekar itzak.

SERGIO*ke eskura daukan oliba-katilu bat pasatzen dio.*

SERGIO: (MARCOS*i*) Nahi?

MARCOS*ek baietz.*

IBON*ek katilua pasatzen dio.*

Olibak jaten dituzte.

IBON: ... Ez daukak platertxorik, hezurak botatzeko?

SERGIO: Bota leihotik.

Hezurak publikoari botatzen dizkiote.

IBON: *(Olibak jaten dituen bitartean.)* Hain urrutira iristea ere... Halako kataklismoa panel zuri batengatik...

SERGIO: Ez duk zuria.

IBON: Kaka zuri bat!... *(Barre-algarek harrapaturik)*... Horixe duk-eta: kaka zuri bat!... Onartzak, gizona!... Erosketa horrek ez zeukak batere zentzurik! Kaka hutsa duk, eta kito!

MARCOSek barre egiten du IBONen neurrigabekeriak hartaraturik.

SERGIO egongelatik irteten da.

Eta berehala itzultzzen da Antrios-a eskuan duela. Lehengo toki berean jartzzen du.

SERGIO: *(IBONi)* Hor al daukak errotuladore famatu hori?...

IBON: Ez, galdu diat berriro.

MARCOS: Honek balio du?

SERGIO: Ekartzak.

IBON: Nirea bezalakoa.

MARCOS: A ze kasualitatea.

IBONek errotuladorea ematen dio SERGIOri.

SERGIOk errotuladorea hartu, estalkia kendu, puntari begiratu eta estalkia jartzzen dio berriro.

MARCOSi begiratu eta errotuladorea pasatzen dio.

MARCOSek hartu egiten du.

Etenaldi laburra.

SERGIO: *(MARCOSi)* Emaiok egurra. *(Isilunea)*

MARCOS koadro aldera burbiltzen da.

SERGIOri begiratzzen dio.

Estalkia kentzen dio errotuladoreari.

IBON: Ez haiz gauza izango!...

MARCOS SERGIOri begira...

SERGIO: Hasi.

IBON: Pitzatuta zaudete biok!

MARCOS *makurtu egiten da koadroaren altuera berean egoteko.*

IBONen *begirada izutua gainean duela, MARCOSeK zeharkako marra batzuk marrazten ditu.*

SERGIO *zirkirik egin gabe.*

Ondoren, malda horren gainean, MARCOSeK eskiatzaile txanodun txiki bat marrazten du.

Amaitzean, zutitu eta obrari begiratzeko dio.

SERGIOk *marmolezkoa balitz bezala jarraitzen du.*

IBON *zur eta lur.*

Isilunea.

SERGIO: Goseak akabatzen nago!

Goazen afaltzera.

SERGIOk *koadroa hartu eta kanpora ateratzen du. IBONek atzetik jarraitzen dio. MARCOS "La vida feliz" liburua hartu eta irten egiten da.*

6. SERGIOren etxean.

IBON: (*Bakarrik balego bezala. Abots intimoꝝ hitz egiten digu.*) ... Ezkontzaren hurrengo egunean, Kattalinek ezkonberriaren lore-sorta eta almendra-poltsatxo bat utzi zituen bere amaren hilobiaren gainean, Derioko hilerrian. Ni aldendu egin nintzen pixka bat, negar egiteko panteoi baten atzealdean, eta gauean, ohean nintzela, pasadizo hunkigarri hura gogoratu eta negarrari eman nion nahigabeturik. Osbaldorekin hitz egin behar dut lehenbailehen negar egiteko daukadan joerari buruz, edozein gauzogatik hasten naiz negarrez, eta hori ez da batere normala nire adineko mutil batengan. Sergioren etxean hasi zen dena, koadro zuriaren gauean. Egun hartan, Sergiok, dementziazko beroaldi batek eraginda, garbi utzi zion Marcosi askoz gehiago axola ziola berak bere koadro zuriak baino, eta ondoren afaltzera joan ginen Txekor Alaia jatetxera. Txekor Alaian erabaki bat hartu zuten Sergiok eta Marcosek: aurrerantzean saiatu egingo ziren gertaerek eta hitzek hondatutako harremana berregiten. Une jakin batean, gutako batek «proba-aldia» esamoldea erabili zuen, eta ni negarrez hasi nintzen. «Proba-aldia» hitza entzun nuenean gure adiskidetasunari buruz ari ginela, barrenak irauli zitzaizkidan. Nik ja ezin dut eraman diskurtso arrazionalik; izan ere, mundua mundu bihurtu duen guztia, mundu honetan ederra eta handia izan den guztia ez da sekula sortu diskurtso arrazional batetik.

SERGIO: Marcos eta biok lortu genuen, azkenean, xaboi berezi batekin eskiatzailea ezabatzea. Orduan, Antrios-aren aurrean jarri eta, burua jiratur esan nion: «Hik, Marcos, bahekien errotuladorearen tinta garbitzen ahal zela?» «Ez», erantzun zidan berak... «Ez... Eta hik?» «Nik ere ez», esan nuen hitzetik hortzera, gezurretan noski. Esatekotan egon nintzen banekiela. Baina nola eman hain hasiera kaxkarra gure «proba-aldiari»?... Bestalde, gezur batekin estreinatzea ere... Gezurra, gezurra! Ez da hainbesterako. Nondik ote datorkit niri exageratzeko joera txatxu hau? Zergatik behar du hain konplikatu Marcos eta bion arteko harremanak? Osbaldorekin hitz egin beharko dut.

MARCOS *Antrios garbitu berriarekin sartzen da.*

MARCOS: Hodei zurien azpitik, elur-malutak erortzen ari dira.

Ez dira ikusten, ez hodei zuriak, ez elurra.

Ezta hotza edo eguzkiaren distira zuria ere.

Gizon bakarti bat, eskiatzaile bat, maldan behera irristatzen da.

Elurra ari du.

Elurra ari du harik eta gizona desagertu eta ikusezin bihurtzen den arte.

Sergiok, nire lagun zaharrak, koadro bat erosi du.

Metro eta hirurogei luze eta metro eta hogeitabaleko oihala da.

Gizon bat irudikatzen du, espazioa zeharkatu ondoren desagertu egiten den gizon bat.

TELOIA